

# Gerra zibileko autobiografiak: etika, politika eta metodologia

Pio Perez Aldasoro

Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea  
pio.perez@ehu.es

Ignazio Aiestaran Uriz

Filosofia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea

**Gako-hitzak:** Gerra zibila, tentsio metodologikoak, autobiografiak, testigantzak, justizia.

**Laburpena:** Funtsean, euskaraz idatzi ziren hamar kontakizun autobiografikori buruzko testu-azterketan eta hausnarketan datza ikerketa-egitasmo hau. Aukeratutako idazki horiek gerra zibilaren inguruko gertaerak partekatzen dituzte; gure ustez, ongi ordezkatzeko dute gerra sasoia bizi izan zuen euskaldun komunitatearen belaunaldia. Narrazio autobiografiko horietan, egileek oso garbi adierazi zuten gerrak zenbat atsekabe, zentzugabekeria eta garraztasun zekartzan, eta jasandako sufrimendua zein latza izan zen ohartarazi ziguten. Egitasmoaren lehenengo zirriborroetatik ohartu ginen egitasmoak zenbait korapilo gordetzen zituela bere baitan itsatsita; besteak beste, metodologikoak, epistemologikoak eta maila politikokoak; eta horiek partekatu nahi ditugu hemen.

## 1. Sarrera

Eskuartearen dugun ikerketaren inguruan sortu diren zenbait auzi edo korapilo aurkeztu nahi dizkizuegu. Funtsean, euskarazko hamar kontakizun autobiografikoren inguruko azterketan datza egitasmoa, eta hortik iradoki daitezkeen ondorengo hausnarketetan<sup>1</sup>. Aukeratutako narrazio guztiek partekatzen dituzte gaia eta garaia: batetik, gerra zibileko gertaeraren testigantza samingarriak jasotzen dituzte eta, bestetik, gerran edo diktaduraren lehenengo urteetan nozitutako sufrimenduak eta premiak.

---

<sup>1</sup> Ikerketa proiektu honek jaso zuen Eusko Ikaskuntzaren Agustin Zumalabe beka (2010eko deialdian).

Gureganatu nahi izan dugu Nordstrom-ek (1995) aditzera eman zuena, gerraren in-guruko ikerketak bildu zituenean: ikertzaileek arreta handiagoa jartzen zutela gerraren alderdi tekniko eta historikoa deskribatzen, gerrak pertsonengan dakarren sufrimendua agertzen baino. Hausnarketa ziztakari hori gure lanaren abiapuntutik kontuan hartu nahi izan dugu.

Autobiografia guztiak idazki pertsonalak dira: subjektibotasunez eta emozioz beteak. Idatzitakoa eta kontakizunetan moldatu dituzten hitzak oroimenaren narrazioak dira. Halaber, autobiografia guztietan nahasten dira kontzientea eta inkontzientea, objektibotasuna eta subjektibotasuna; eta zaila izaten da uztartzea idazki bakoitzaren banakotasuna eta gizartearen ikuspegia, hala nola zein neurritan aldeztu duten bata ala bestea.

Izan ere, lan honetarako aukeratu genituen kontakizun gehienak<sup>2</sup> gerrako garaituen autobiografiak dira, eta horiek honako auzien aurrean jarri gaituzte: Zuzentasuna, ordaintza, egia, barkamena edota adiskidetzeta. Azterlan honetan, ezagutzaren nahia, oroimena eta zuzentasuna uztartzen saiatu gara. Benjaminek zioen oroimena ezagutzaren teoria bilakatu zela. Oroimenak, beraz, sentimenduen mundutik alde egin zuen eta ezagutzeko tresna zehatza izatera heldu da. II. Mundu Gerraren ondoren, gogoratu gabe ezin dugu ezagutu (Aiestaran, 2010).

Lanaren zirriborroetatik ohartu ginen egitasmoak zenbait korapilo gordetzen zituela bere baitan itsatsita; besteak beste, azterlanaren auzi metodologiko eta epistemologikoei zegozkienak eta ikertzaileon maila etiko eta politikoan ondorioak zituztenak. Hauek dira garrantzitsuenak, besteren artean:

- Autobiografia eta zientzia antropologikoa. Zein neurritan kontaketa autobiografikoak sor dezake ezagutza antropologikoa? Zein neurritan banakoaren mailatik ondorioztatu daitezke kolektiborako emaitzak?
- Diskurtsoaren eraikuntza. Egileak nola eraiki du kontaketa autobiografikoa? Noiz idatzi du? Zein garaitan argitaratu da? Zein testuinguru historikotan dago idatzia? Zein da narraztailearen tempo?
- Autobiografiak egitate historikoekin duen harremana. Narraztailea bera da kontaketen duenaren egiaztazailea? Hau da, kontaketen du eta, era berean, egiazta-tu egiten du kontaketen duena egia dela.
- Diskurtso autobiografikoaren intenzionalitatea. Egileak zertarako idatzi du bere autobiografia? Norentzat idatzi du narrazio autobiografikoa? Idazleak noren aurka edo noren alde egin du narrazioa eraikitzerakoan?

## 2. Ahots isilduak

Gerra zibila izan da XX mendean Hego Euskal Herriak bizi izan duen gertaerarik tragikoenetariko bat. Gerrak eta ondorengo urteek garai hartako euskaldunen belaunaldia eta atzetik etorri direnak astindu zituzten. Lau hamarkada luzetan, garaileek aukera ugari izan zituzten euren ikerketa interesatuak, idazkiak eta ahotsak agertoki publikoan ezartzeko; garaituek, ordea, isilik egon behar izan zuten.

Ikerketarako aukeratu ditugun idazleok euren testigantza autobiografikoen bidez azaldu nahi izan dute urteetan komunikatu ezin izan dutena, edo, barne-barnean, isilean gorderik izan dutena. Horrelako narrazio autobiografikoek, batez ere testigantza trauma-

---

<sup>2</sup> Kontalari batek garaileen armadan egin zuen gudua, eta beste bati bi aldetan borrokatzea egokitu zitzaion.

tikoaz aritzen diren idazkiek, zeregin bikoi-tza izaten dute: Batetik, beste edozein idazki legez, irakurlearengana zuzentzen dira, beste batek irakur dezan idazten dira. Eta bestetik, idazleak bere buruarentzat idazten du, era berean oroimenarekin duen zorra eta zama arindu nahian. Antonio Zavalak, erabiliko ditugun autobiografia gehienen jasotzaile eta bultzatzaileak, oso ongi irudikatu zuen testigantzaren bigarren zeregina. Xalbador Zapirainek Zavalari eman zizkion *Zigorpean* eta *Espetxeko negarrak* liburuen eskuizkribuak, argitara zitzan, Zavalak horrela gogoratu zuen anekdota artikulu batean:

Ala ere, etzait bein ere aaztuko Ataño-k liburu oriek eskuan zituela esan zidana:  
–Banuen gogoia nire barrua ustutzeko, lasaitasun ederra artu det (1996: 234).

Testigantza traumatikoen idazle horiek gogora ekarri nahi dituzte garaituak, zigortuak, hildakoak, eta bizirik irten zirenekin lotu dituzte horiek. Todorov-ek (1999) idatzi zuen bezala, holokaustoaren inguruan heriotza aurkitu zutenek honako hau eskatu ziguten bizidunoi: adi, gogoan izan ezazue gertatu zena, eta zabal ezazue horren berri eta irakasbidea. Eta ez dugu gogoratu behar bakarrik gertatu zena errepika ez dadin, baizik baita horrela desagertuen bizitzek esangura izan dezaten ere. Orduan, fusilatu eta hildakoen bizitzek eta testigantzek etorkizunean arrastoak uzten badituzte, gure gogoia urratzen badute, horien heriotzak esangura izango du geroan ere, eta heriotza ez zen izan alferrikakoa (Calveiro, 2001).

Azterlanerako guk aukeratu ditugun autobiografia horiek idatziak dira eta, gehienak, Aita Zavalaren bultzadaz argitaratuak. Zavalak lan eskerga egin zuen bertso bildumak, herri kontakizunak, erroman-

tzeak eta biografiak herriz herri biltzen, berak zuzentzen zuen Auspoa izeneko bilduman argitaratzeko. Beharbada, Zavalak bultzatu zuelako, testigantza autobiografiko horiek lotura zuzena agertzen dute herri literatura eta ahozko historiarekin. Badakigu gai eta garaiarekin lotutako autobiografia eta idazki gehiago egon badaudela, eta beharbada narrazio autobiografikoz gain badaudela beste adierazpen batzuk ere, idatziak zein ahozkoak, baliagarriak direnak gerra zibileko gaia eta garaia ikertzeko<sup>3</sup>.

Lehenengo narrazioa Sebastian Salaberrriaren *Neronek tirako nizkin* (1964) eleberria da. Liburu horretan, Sebastianek soldadu baten ibilerak eta gerra zibilean bizi izandako tragedia pertsonala kontatzen ditu. Sebastianek, Francoren aldeko ejertzitoan sartuta, lubaki eta borroka eremuetan, gorpuk eta zaurituen artean arakutzen zuen, bere anaia (Euzko Gudarostekoa) aurkituko zuen beldurrez. Anaia hildakoen artean aurkituko ote zuen beldurra obsesio bilakatu zen. Zaurituta, Sebastianek gerra-tokia utzi behar izan zuen, bala baten ondorioz zango bat galdua. Ospitalean sendatzen zen bitartean anaiarekin topa egin zen. Bi anaiek elkar ikusi zutenean, Kasimirok Sebastiani esan zion beharbada berak tiratu ziola, aurrez aurre egon zirelako Iurreko guduan.

Antonio Zavalak lagunduta, Iñaki Alkainek *Gerrateko Ibilerak* (1981) izeneko hiru liburukitan idatzi zituen gerran izandako bizipenak. Autobiografia hori ere Francoren heriotzaren ondoren argitaratu zen. Hiru liburuki horietan, istorio eta pasadizoz gain

---

<sup>3</sup> Kontakizunak aukeratzeko anean bi auzi izan ditugu buruan: euskaraz idatziak egon behar zirela (hizkuntz diskriminazio positiboaz gainera, garaiko euskaldunen pentsaera azaldu nahi genuen); eta gerrari buruzko pasarte autobiografikoak izan behar zirela.

(batzuetan abentura liburua dirudi) egileak beldurra, sufrimendua eta galtzailearen patua agertu zituen. Hirugarren liburukian, frankistek atxilotu zuten uneari buruzko gertaldiak bildu zituen egileak. Bizkaiko hiriburua matxinatuen eskuetan erori zenean hartu zuten preso Alkain.

Kartzelako bizimoduari buruzko testigantzak dira Xalbador Zapirain *Ataño*ren liburua. Bi liburutan kontaktzen ditu espetxe frankistetan bizi izandako miseriak, sufrikario eta tormentuak, eta bere familiak pairatu zuen jazarpena (haren familia osoa atxilotu zuten eta bi anaia fusilatu egin zituzten). Lehenengo, Donostiako Ondarreta kartzelan sartu eta handik Iruñeko San Cristobal espetxera eraman zuten. Azken espetxe horretan preso zela Xalbadorrek ezagutu zuen presoen ihesaldi zapuztua. *Zigorpean* (1985) eta *Espetxeko negarrak* (1985) dira bi liburu horiek.

Aipatu behar den beste liburu bat Balendin Enbeitaren *Bizitzaren joanean* (1986) da. Autobiografia horretan, Bizkaiko bertsolariak bere bizitzari erreparaso egin zion eta bizi-testamentu modukoa edo oroimen lana da. Liburu horretan, atalik luzeena gerra zibilari eta ondoren jasandako errepresioari eskaini zizkion egileak. Gernikaren bonbardaketaren ondoren sartu zen Balendin Euzko Gudarostean, eta gudarien lotura postua egokitu zitzaion. Langintza horretan ziharduen Balendinek, zauritu zutenean. Ospitaleez ospitale eraman zuten frankisten soldaduengandik ihesean. Azkenean, peripezia ugariaren ondoren, italiarrek atxilotu zuten, Kantabrian, eta egun gutxira frankisten eskuetara igaro zen. Hamabi urteko kartzela zigorra ezarri zioten, eta hango bizimodua eta gertatutakoa kontatu zituen biografian.

Halaber, interesgarria da Santiago Onaindia apaizaren *Oroi-txinpartak* (1988) izeneko autobiografia. Liburu mardul horretan bere

ibilbide artistikoaz (poeta, entsegugilea eta nobelagilea izan zen) eta bilakaera pertsonalaz (erlijioa eta gudua) aritu zen. Egileak liburukote horretan abertzaleen gudarostean kaperau egindako zerbitzuak eta kartzelatan igarotako urteak ekarri nahi izan zituen gogora. Lan horretaz baliatzen da euskal gudarien defentsa egiteko, ahanzturaren kobazulo ilunetik erreskatatu nahi zituen borrokan egon ziren hainbat eta hainbat euskal gudari. Narrazioaren orrietatik igaroarazi egiten zituen Onaindiak urtetan isilduta eta gordeirik izan zituen lagunak; izena eta duintasuna eman nahi zizkien horiei guztiei.

Diktadorea desagertu ondorengo liburua dugu Jose Mari Etxabururen testigantza, *Neure lau urteko ibillerak* (1989) izenekoa. Narrazio autobiografiko horretan, egileak paperean jarri zituen atzerrian igarotako lau urteko istorio eta abenturak. Lau urte atzerrian egon ondoren hegoaldera itzuli zenean, atxilotu egin zuten, eta Euskal Herritik kanpo bizitzera behartu. Liburuan atzerrian eta desterruan bizi izandako urteak ditu go-goan, urte horietan izandako bizipenak eta bakardadea.

Aukeratuen artean Fermin Irigarairen testigantza dugu *Gerla urte, gezur urte. Iruñea 1936-40, isiltasunean mintzo* (1993) izeneko liburua. Egunkari moduko idazlan horretan, estatu kolpearen inguruan Iruñean ikusi zituena kontatzen ditu egileak. Liburu hori ez da bakarrik gertaera batzuen kontaketa; behatzailearen iritziak eta hausnarketak sarri agertzen dira, matxinatuen eta horien egoerari buruzko azterketak eta kezkek, alegia. Liburu hori ez da oroitzapen idazlan bat, egileak iragan diren unetan kontaktzen ditu gertakariak.

Agustin Zinkunegik diktadorea hil zen arte itxaron behar izan zuen *Bizi naiak lege zorrotzak* (1995) izeneko narrazio autobio-

grafikoa argitaratzeko, frankistekin borrokatu bazen ere. Andoaindarrak gogoan zituen lehendabizi Euzko Gudarostean eta Francoren armadan egindako urteak. Herri batetik bestera gerratik ihesean zebilen gazte andoaindarra Euzko Gudarostearekin borrokatzeko deitu zuten. Euskal armadarekin ezagutu zituen Iparraldeko frontearen atsekabeak, eta beste gudariekin batera Kantabria aldean atxilotu zutenean, kartzela zigorra ezarri beharrean frankisten armadan sartzerara behartu zuten. Frankisten soldaduekin Ebroko guduetan hartu zuen parte. Bere borondatearen aurka, gerraren erdian ikusi zuen bere burua, eta urte horietan bete-betean ezagutu zituen gerraren samindurak eta nahigabeak.

Eta amaitzeko, Iñaki Isasmendik idatzi zuen autobiografia dugu, *Nire denboraldiko ibilerak* (2000) izenekoa; Etxaburuk izan zuen kontrako norabidea agertzen da, ordea. Isasmendik Francoren kartzelak eta giltzapeko bizimodua ezagutu zituen lehendabizi, eta gero atzerrira alde egin zuen. Behin zigorra beteta, askatu egin zuten, eta bere burua ez zuenez babestuta sentitzen, erbestera bidea hartu behar izan zuen. Estatu frantziarrean bizi zela, nazien kontrako erresistentziaren indarrekin bat egin zuen, eta bete-betean sartu zen faxismoaren aurkako mugimenduetan.

### 3. Korapilo metodologiko eta epistemologikoak

Badakigu guk hona ekarri dugun azterlanak ikuspuntu metodologikotik zenbait tirabira agertzen dituela. Guk aukeratu ditugun autobiografietan etengabe elkar-gurutzatzen dira irudi kontziente eta irudi inkontzientek, banakoaren ikuspuntua eta kolekti-

boarena, jarrera objektiboa eta subjektiboa. Bourdieuk (Pujadas-ek aipatua, 2000)<sup>4</sup> zioen edozein bizitzaren narrazioa (egileak) subjektuak identifikatu edo onartzen ez dituen hutsunez beterik dagoela. Horren aburuz, autonarratzaileak ikuspegi koherente bat ezarri nahi die bere buruari, bere bizitzari eta bere idazkiari. Hau da, edozein autobiografiatan bizitza koherente bat kontatu nahi da; horretarako, oroitzapenetan zein ahanzturretan egituratzen da narrazioa, egilearen beraren sentimenduak edo gertakarien inguruko balorazioak baztertu gabe. Eta bizi-osagai nahaste horretatik sortzen den ekoizpena egiazkoa eta objektiboa balitz bezala onartzen dugu (Devillard, 2004: 161).

Neurri batean edo bestean, denok gara istorio kontalariak, eta gu geu gara kontatzen ditugun istorioak. Gainera, narrazio eta berbaldi horien bitartez besteekin sartzen gara harremanetan, gizarteratu egiten gara. Azken batean, ez badugu kontatzen ez gara, erkidegoaren partaideak ez garen neurrian. Historiako gertakariak edo gizarterako egitateak berez ezin dute ezer kontatu, narraztaile bat behar dute, eta horretan datza subjektibitatearen arazoetako bat. Finean, diskurtsoak subjektibitatearen segidak dira, puzzleen zati batuak; hau da, subjektuak (diskurtso egileak) osatzen duen eraikin pertsonala.

Halaber, badakigu oroimena ez dela bakarrik oroitzapenen biltegia. Oroitzea sortzea da, oroitzapenen bitartez gure bizitza landu egiten dugu. Denbora igaro ahala, subje-

---

<sup>4</sup> Gure egitasmorako Pujadasen artikulua landu genuen, baina hona hemen testuaren jatorrizko aipamena eta gaztelaniazko itzulpena: Bourdieu, Pierre (1986) "L'illusion biographique", *Actes RSS*, 62/63: 69-72. Bourdieu, Pierre (2005) "La ilusión autobiográfica", *Archipiélago. Cuadernos de Crítica de la Cultura*, 69: 87-97.

ktuaren eboluzioarekin batera, memoria ere eboluzionatzen da, denboraren geruzaz oroitzapenak eraldatzen dira, beste itxura bat hartzen dute. Baina era berean, memoriak bazterrean uzten ditu oroitzapen batzuk, ahaztuta; hutsuneak sortzen ditu, memoriak ahantzi egiten ditu. Denborak ezartzen ditu oroitzapenen geruzak, bata bestearen gainean, goikoek behekoak azaltzea oztopatzen dute. Finean, memoria norbanakoaren gogorapenak trikotatzen duen ehuna da.

Horregatik, bada, ezin ditugu ahantzi narrazio autobiografikoek dituzten ezau-garriak. Narrazio paregabeak eta subjektiboak dira; horrenbestez, Chevalier-ek (1974) zioen bezala, ikertzaileok adi egon beharko dugu narratzaileak bere biografiari buruz egingo dituen interpretazio, egituratze eta berreraikitze lanekin. Buruhauste metodologiko hori gainditzeko, narrazioa bere garai historikoan kokatu behar dugu, eta garatzen den testuinguru sozialean lekutu. Halaber, komenigarria da kontaketa agertzen diren gertakariak jaso diren egitate historikoekin gurutzatzea (Poirier, 1983). Auzi metodologikoaren alderdi hori bigundu nahian, saio ugari argitaratu dituzte, besteak beste, ikertzaile frantziar hauek: Joutard, Claude Bouvier eta Noel (Ormières, 2003: 123).

Horregatik, esandako afera metodologiko eta epistemologikoak gainditu nahian, aukeraketa hau egin dugu: hamar kontakizun biografiko, alegia. Horrela, gure ustez, hainbat ikuspuntu ezberdinetatik abia gaitzke azterlanean. Azken batean, hamar kontakizun autobiografikok batek baino informazio gehiago eskaini dezakete, eta, behar bada, bizi kontakizunek korritzen dituzten mugarriak esanguratsukoak izan daitezke.

Aipatu dugun bezala, norbanakoak bere autobiografia idazten duenean gogoangarritzat dituen bizipen batzuk hautatzen ditu;

beste batzuk, ordea, isilean gordetzen ditu, barnean; hots, norbanakoak, subjektibitatez antolatzen du bere bizitzari buruzko berbal-dia. Hala ere, norbanakoak bere autobiografia kontatzeko duen autonomia mugatua da. Gizarte testuinguruak eta kultura-molde batzuk direla eta, autonarratzailea guztiz baldintzatua dago.

Gizarte testuinguruak eta kultura-molde horiek ez dituzte antolatzen azaleko egitura narratiboak bakarrik; osagai baldintzatzaileek edukizko eta baliozko egiturak ere bideratzen dituzte (Pujadas, 2000). Kultura-moldeaz hitz egiten dugunean, antropologia kognitiboan erabiltzen diren kultura-eskemekin parekatu nahi ditugu horiek. Azken finean, bai kultura-moldeak eta bai kultura-eskemak ezagutza egitura partekatuak dira, eta kontzeptuaren barnean hartzen dituzte egitateak, egoerak eta gertakariak. Edozein gizarte fenomeno definitzeko trazu kognitiboak dira (D'Andrade, 1995). Kultura-eskema eta kultura-molde horiek egitura malguak dira, eta gai dira norbanakoen esperientzia partikularrak integratzeko (García, 2000). Antzeko jarrera aldeztu zuen Maurice Halbwachs-ek (2004) hau esan zuenean: memoria, norbanakoaren memoria, gizarte koadro edo markoen barnean mugitzen da. Azken finean, norbanakoaren oroitzapena eta memoria kolektiboa gizarte-txanpon beraren bi aurpegiak lirakeke, zeren norbanakoaren edozein oroitzapen beti gizarte marko batean suertatzen da. Esaterako, nahitaez hizkuntza baten bidez (kolektiboan) irudikatuko da. Azken finean, gizarte arau eta koordenada zehatzen barnean egituratuko da aipatutako oroitzapena (Colmero, 2000: 222).

Orain arte, bi tentsio ekarri nahi izan ditugu: bata, banakoen esperientzia eta kolektiboarena nola uztartu; eta bestea, memoriaren fidelitatea edota kontakutua eta

egiaren arteko harremana zein den ulertaraztea. Lanean zehar ikusi dugu tentsio horiek beste dimentsio bat hartzen zutela eta, behin baino gehiagoetan, beste maila bateko tentsio bilakatu direla: zuzentasuna eta ekitatea (Blain, 2003: 54).

#### 4. Korapilo etiko eta politikoak

Autobiografia azterlan horien bitartez, oroimen berreskurapena egin nahi izan dugu, garaituen memoria lurpetik atera. Francoren erregimen politikoak garaituen oroitzapen eta testigantzen gaineko isiltasun zorrotza ezarri zuen, erabatekoa. Urte askotan, oroimen horiek tiraderan gorde behar izan dituzte. Horietako batzuek argitalpena ikusi zuten eta erresistentzia moduak eraiki zituzten (Beverley, 2002).

Testigantza horiek oinatzak dira, zerbait gertatu zela ohartzen gaituzten diskurtsoak dira (Ricoeur, 1999). Behin baino gehiagotan, testigantzak artxibo eta memoriaren arteko zubiak dira. Lekukoak zer ikusi, zer entzun, zer bizi eta zer sentitu zuen adierazten duten narrazio krudelak.

Gerra zibila ez zen 1939an amaitu. Franco etengabe agertzen zen albistegi, egunkari, zigilu, argazki, iragarki, testu-liburu eta inaugurazioetan. Ondorioz, garaituen bazterketak eta beldurrak urteetan iraun zuten. Erregimenak ezarri zituen errepresio mekanismo bortitzak, mekanismo horien presentziak ezartzen zuen neurri gabeko beldurrak eta populazio zibilaren zati baten jarduera kolaborazionistak baldintzatu zuten gerra-ondorengo giro susmagarria. Garaiotan kontrolik gabeko beldurra, elkar akusatze, eta bidegabekeria anitzak bultzatu ziren. Urte horietan zehar, garaituen egunerokotasuna latz bilakatu zuen erregimenak, euren oroi-

tzapenak adierazteko eta ahoskatzeko benetako zailtasunak izan dituzte orain dela gutxi arte (Ferrándiz, 2005).

Estatuan, aldebakarreko memoria baka-rrik onartu zen berrogei urtean, propaganda-helburu argiekin (Leizaola, 2009: 363), eta irabazleen oroimen hori garatu ahal izateko, galtzaileen edozein memoria ahantzi behar zen. Demokraziarako trantsizioa ahanzturaren zimenduekin eraiki zen; antzinako zauri zaharrak ez zirela berriro zabaldu behar zioten politikariek; etorkizunean bizi ahal izateko, iraganaldiarekin bizitzen jakin behar genuela. Diktadorea hil eta gero, autoamnistia bat ezarri zen, eta frankismoaren aurkako borrokalarien delituak barkatu zituen; baina era berean, faxismoak, erregimenak eta jarraitzaileek egin zituzten sarraskiak ahaztu behar ziren.

Trantsizioko historia ofizialak gatazkako bi aldeek erantzukizuna parekatu nahi zuen, gatazkan zeuden bandoen artean banatu nahi zuen errua, eta, era berean, prozesu horretan nazioa ama bezala irudikatu zuten, gerra zibila anaien arteko borroka gaitzesgarri bat balitz bezala (Narotzky, 2004). Euskal Herriko gizartean asko hitz egiten da memoriaz. Herri askotan, bertako erakunde ofizialek bultzatu dituzte oroimen-jarduerak: festa eta oroitzapen egunak, oroimen lekuak, museoak eta erakusketak. Baina sarritan, hiritarren ekimenak dira erakunde publikoak bultzatu dituztenak. Estatu Espainiarrean erakunde ofizialek ez dute gogoz bultzatu oroimen kulturaren politika aktiboa. Gizarte mugimenduak izan dira horrelako oroimen kultura bultzatu dutenak. Adibidez, Asociación para la Recuperación de la Memoria Histórica (ARMH) edo Foro por la Memoria izan dira Espainian horrelako ekimenak eta oroimen kultura bultzatu dituztenak.

Hala ere, memoria historikoaren eta memoriaren berreskurapenaren inguruko gogoeta falta nabari da<sup>5</sup>. Gogoratzea garrantzitsua da, baina gizarteak nola gogoratzen duen jakiteak lagunduko digu ulertzen gizarte beraren norabidea eta demokrazia trantsizioa nola gauzatu zen. Beste lekuetan gertatu den bezala, interesgarria litzateke memoriaren lanketaren inguruan ikerketa eta informazioa banatzea. Bestela, nola erai-kiko dugu etorkizuneko gizartea, iragane-koaren eraiketan adostasunik ez badago?

Horregatik, gure ustez, hona ekarri ditugun autobiografia horiek justizia bultzatu nahi dute, errepresaliatu edo hildakoei zor zaiena eskaini nahi diete, hain zuzen. Bere etorkizunari aurre egin nahi dion edozein gizartek iraganaldiko auziak bere gain hartu eta ikertu behar ditu. Egia, zuzentasuna, barkamena, bakeak egitea eta antzeko hitzei esanahia kendu nahi ez badiegu, urtetan isilduak izan diren hainbat eta hainbat testigantza berreskuratu behar ditugu. Eta ez diogu hori gure gizarteak iraganarekin eta historiarekin duen zorrarengatik, baizik eta gure ustez testigantza autobiografiko horiek etorkizunarekin konpromiso sendoa agertzen dutelako. Testigantza traumatikoak gizarte osoaren oroimen sozialak dira, eta Todorov-en esana gureganatu nahi dugu: Iraganaren izua eta iraganaren izugarrikeriak ezagutzen dituen edonork gaur egungo izugarrikerien aurka altxatzen du ahotsa. Iraganaldiko memoriaren euskarriak desagerraraztea nahi zutenean, gogoratzea eta

gogoratzea zen garaituek bizirauteko zuten aukera bakarra. (Panizo, 2009: 74).

Hala zioen Primo Levi-k (2002) sarraskitze-esparrutan, bizirik jarraitu ahal izateko gauza bakarra zuela buruan: esparruetan bizi eta ikusi zuena kontatu behar zuen. Berdintsu zioen Victor Kenperer-ek (2003); bere egunkariko kronikak idazteak lur jota gertzetik salbatu zuen, nazien aurrean idazteak bere bizitzari duintasuna eman zion. Bizirik irautea gizaki ororen animo eta borondatea da, baina ikusi, sufritu eta bizi zena kontatu ahal izateko bizirik irautea beste iraupen mota bat da (Calveiro, 2001).

## 5. Hausnarketarako ondorio batzuk

Narrazio autobiografiko hauek lantzea ez da egile bakoitzaren ibilbide pertsonala aztertzea, horiek lantzea egile horien memoria lantzea da. Eta oroitzea ez da gertakizunen zaindari soila, baizik eta esanahiak sortzen duen prozesu aktiboa.

Narrazio autobiografikoan ematen den subjektibotasuna horrela ulertu daiteke: gertaera baten aurrean idazleak gertaera horri buruz ulertu, antzeman eta zerbait gehitzeko duen gaitasuna. Subjektibitatea errealitateari eusteko, mundua ezagutzeko eta ulertzeko abiapuntua bezala islatzen da Dilthey-k bizi-zen kontzeptu deitutakoa (2000: 139). Bizipena da giza bizitzaren objektibizazioaren oinarria, eta horren historizazioa ahalbidetzen duena. Errealitatearen ekintza ulerkor bilakatzen da, eta horrek lehenengo pertsonan egiten diren narrazioen garrantzia azpimarratzen du. Bizitzea da ulertzea.

Autobiografiak dira, lehenengo pertsonan idatziak daude; hala ere, narratzaileak ez dira oroimen horien protagonistak. Narrazioen protagonistak testigantzetan zehar azaltzen

---

<sup>5</sup> Gizarte antropologian gogoeta hori bide ezberdinetatik egin da. Besteak beste, kongresuak antolatu dira, 2011ko Estatu Espainiarreko antropología elkarteak kongresua da horren eredu. Halaber, ikerketa taldeak bultzatu dira, bat aipatzearen Francisco Ferrandizek bultzatzen duen "Las políticas de la memoria: balance de una década de exhumaciones".



diren preso, hildako edota fusilatua dira, horiek bilakatzen baitira narrazioaren protagonista. Holokaustoaren narrazioetan gertatzen den bezala, hitza aireratu ezin duten sarraskituek hartzen dituzte hitza eta bizitza (Melich, 2001). Memoriaren garaian bizi omen gara; agian, testigantza garaian, esan beharko genuke. Horren haritik, askotan entzuten da hedabideetan galdera hau (edo antzeko bat): Zergatik eta zertarako gogoratu? Adar biko galdera horrek erantzun ugari izango lituzke, baina erantzunak, nola edo hala, joera ideologikoaz blai daude (Arostegui, 2004: 7), edozein aukeraketak jarrera politikoa aldeztu du.

Historian zehar, gure diziplinak kezka handiago agertu du maila kolektiboa argitzen, maila pertsonala (banakoena) argitzen baino. Hala ere, antropologok alderdi makro zein alderdi mikroan jarri behar dugu arreta, eta balorazio horretan bi alderdiak nola gurutzatzen diren ikusi.

Oroimenaren kasuan, azterketek uztartu beharko dituzte oroimen ofizialaren esparrua eta oroimen pertsonalarena, eta bien artean suertatzen diren gatazkak, korapilo eta modulazioei buruzko aztergunetan adi egon (Ruiz Ballesteros, 2005).

Adornok (Tafalla, 2003) planteatzen zuen bezala, II. Mundu Gerraren ondoren inperatibo kategoriko berria ezarri zen, eta inperatibo horren oinarrian lekukoaren hitza ezarri behar zen. Testigantza autobiografiko horiek esakune performatiboak dira (Austin 1982)<sup>6</sup>. Hots, testigantza horiek ez dira mu-

gutzen egitatea azaltzera, testigantza horiek adierazteagatik soilik, egitate bat sortzen dute. Testigantza horiek ezin dira egia ala gezur terminoetan aztertu; izan ere, ez dute ezer azaltzen, ekintza bat burutzen dute.

Beharbada, hain ohikoa den testigantza eta lekukoaren adierazpena zuzenbide prozesalean bezala, gizarte antropologian edo filosofian eraiki beharko genuke testigantza edota lekukoaren hitzaren inguruan mugituko litzatekeen egiaren teoria bat (Reyes Mate, 2008: 119).

Eta amaitzeko, ezin dugu aipatu gabe utzi autobiografia horiek oso gaurkoak direla, jendaurrean jarri nahi dituzte emozioak. Faxismoaren aurkako borroka, gerraren bidegabekeriak, garaituei ezarri zieten indarkeriak ari gara, baina ez ditugu urtarazi nahi indarkeria eta errepresioarekin batera, sufrimenduaren alderdiak eta diskurtsoak. Garaituen bihozminak bere ahotsa bilatu behar du, jendaurrean bere lekua aurkitu nahi du, hitz egin behar du. Azken finean, hori da autobiografia horiek lortu nahi dutena, demokraziaren funtsezko gai bat partekatu nahi dute gurekin: justizia egitea.

---

tzen duena ekoizteko eta erabiltzen dituen hitzekin hainbat gauza egiteko gaitasuna duen hizkuntzaren alderdia da gaitasun performatiboa. Austin eta Searleren hizketa-ekintzen teorian, "esaldi performatiboak" ditugu: zerbait esan edo baieztatu baino gehiago, esaldi hauen bidez beste zerbait egiten dugu. Hizketa-ekintzetan kasu garbiak ditugu eguneroko mintzairan: "hitzeman", "promes egin", "zin egin", "erregutu", "agindu", "debekatu", "poztu", "estimatu", "eskertu"... eta beste horrenbeste.

---

<sup>6</sup> Oroitzapenen literaturan hizkuntza ez da datuen deskribapen sinplea. Hitzetan ezkututzen da gaitasun performatiboa. Gaitasun performatiboa, berrogeita hamarrek hamar kadan John Langshaw Austin-ek hizkuntzaren filosofian barneratu zuen kontzeptua da, beranduago John Searle-k sakondua. Izenda-

## Bibliografia

- AIESTARAN, Ignazio (2010) *Walter Benjamin aingerua Gernikako Bonbardaketatik. Esne Beltza eta nazismoaren adiskideok*, Donostia, Elkar.
- ALKAIN, Iñaki; ZAVALA, Antonio (1981) *Gerrateko ibilerak*, Tolosa, Auspoa Liburutegia.
- ARÓSTEGUI, Julio (2004) "Retos de la memoria y trabajos de la historia", *Pasado y Memoria. Revista de Historia Contemporánea*, 3: 5-51.
- AUSTIN, John Langshaw (1982) *Cómo hacer cosas con palabras: palabras y acciones*, Barcelona, Paidós.
- BLAIN, Jean (2003) "Entrevista a Paul Ricoeur", *Historia, Antropología y Fuentes Orales*, 30: 53-60.
- BEVERLEY, John; ACHUGAR, Hugo (2002) *La voz del otro: testimonio, subalternidad y verdad narrativa*, Guatemala, Ediciones Papiro.
- CALVEIRO, Pilar (2001) *Desapariciones. Memoria y desmemoria de los campos de concentración argentinos*, Mexico, Taurus.
- CHEVALIER, Yves (1974) "La biographie et son usage en sociologie", *Revue Française de Science Politique*, 29: 83-101.
- COLMERO, J. F. (2000) "La crisis de la memoria", *Anthropos*, 189/190: 221-227.
- D'ANDRADE, Roy (1995) *The Development of Cognitive Anthropology*, Cambridge, Cambridge University Press.
- DEVILLARD, María José (2004) "Antropología social, enfoques (auto)biográficos y vigilancia epistemológica" *Revista de Antropología Social*, 13: 161-184.
- DILTHEY, Wilhelm (2000) *Dos escritos sobre hermenéutica: el surgimiento de la hermenéutica y los esbozos para una crítica de la razón histórica*, Madrid, Istmo.
- ENBEITA, Balendin (1986) *Bizitzaren joanean*, Donostia, Elkar.
- ETXABURU, Jose Maria (1989) *Neure lau urteko ibillera*, Tolosa, Auspoa.
- FERRÁNDIZ, Francisco (2005) "La memoria de los vencidos en la Guerra Civil", in J. M. VALCUENCE DEL RÍO; S. NAROTZKY, *Las políticas de memoria en los sistemas democráticos: poder, cultura y mercado*, Sevilla, Fundación del Monte, 123-147.
- GARCÍA GARCÍA, José Luis (2000) "Informar y narrar: el análisis de los discursos en las investigaciones de campo", *Revista de Antropología Social*, 9: 75-104.
- HALBWACHS, Maurice (2004) *Los marcos sociales de la memoria*, Barcelona, Anthropos.
- IRIGARAI, Fermin (1993) *Gerla urte, gezur urte. Iruñea 1936-40, isiltasunean mintz*, Iruñea, Pamiela.
- ISASMENDI, Iñaki (2000) *Nire denboraldiko ibilerak*, Azkoitia, Azkoitiako Udala.
- KLEMPERER, Victor (2003) *Quiero dar testimonio hasta el final. Diarios 1937-1945*, Barcelona, Galaxia Gutenberg; Círculo de Lectores.
- LEIZAOLA, Aitzpea (2009) "Memoria historikoaren berreskurapena eta gertakari traumatikoen transmisioaren erronkak. Gerra zibileko lekukotza-bilketarako ohar metodologikoak", in M. ERRAZKIN; J. AGUIRRE-MAULEON, *1936ko gerra Euskal Herrian: historia eta memoria*, Bilbo, Udako Euskal Unibertsitatea, 349-377.
- LEVI, Primo (2002) *Si esto es un hombre*, Barcelona, El Aleph.
- MELICH, Joan Carles (2001) *La ausencia del testimonio: ética y política en los relatos del Holocausto*, Barcelona, Anthropos.
- NORDSTROM, Carolyn (1995) *Fieldwork under Fire. Contemporary Studies of Violence and Survival*, Berkeley, University of California Press.
- ONAINDIA, Santiago (1988) *Oroi-txinpartak*, Amorebieta, Karmeldarrak.
- ORMIÈRES, Jean Louis (2003) "Las fuentes orales: ¿instrumento de comprensión del pasado o de lo vivido?", *Historia, Antropología y Fuentes Orales*, 30: 119-132.

- PANIZO, Laura Marina (2009) "Muerte, desaparición y memoria: el caso de los desaparecidos en la última dictadura militar argentina" *Historia, Antropología y Fuentes Orales*, 42: 71-84.
- POIRER, Jean; CLAPIER-VALLADON, Simone; RAYBAUT, Paul (1983) *Les récits de vie. Théorie et pratique*, Paris, PUF.
- PUJADAS, Joan Jose (2000) "El método biográfico y los géneros de la memoria", *Revista de Antropología Social*, 9: 127-158.
- REYES MATE, Manuel (2008) *La herencia del olvido*, Madril, Errata Naturae.
- RICOEUR, Pierre (1999) "Definición de memoria desde el punto de vista filosófico", in F. BARRETT-DUCROCQ (zuz.) *¿Por qué recordar?*, Bartzelona, Granica.
- RUIZ BALLESTEROS, Esteban (2005) "Memoria y conocimiento social", in J. M. VALCUENCE DEL RÍO; S. NAROTZKY (2005) *Las políticas de memoria en los sistemas democráticos: Poder, cultura y mercado*, Sevilla, Fundación del Monte, 75-89.
- SALABERRIA, Sebastian (1964) *Neronek tirako nizkin*, Tolosa, Auspoa.
- TAFALLA, Marta (2003) *Theodor W. Adorno. Una filosofía de la memoria*, Bartzelona, Herder.
- TODOROV, Tzvetan (1999) "Después del horror, la memoria y el olvido", *El Correo de la Unesco*, 52 (12): 18-19.
- ZAPIRAIN, Xalbador (1985) *Espetxeko nigarrak*, Tolosa, Auspoa Liburutegia.
- (1985) *Zigorpean*, Tolosa, Auspoa Liburutegia.
- ZAVALA, Antonio (1996) *Auspoaren auspoa II (Itzaldiak/Conferencias)*, Tolosa, Auspoa Liburutegia.
- ZINKUNEGI, Agustin (1995) *Bizi naiak, lege zorrotzak*, Oiartzun, Sendoa (Auspoa Liburutegia).

**Palabras clave:** Guerra Civil, tensiones metodológicas, autobiografías, testimonios y justicia.

**Resumen:** El trabajo de investigación que presentamos trata sobre las reflexiones que surgieron en torno al análisis de diez autobiografías escritas en lengua vasca. Estas diez narrativas tienen en común las vivencias y las reflexiones de los autores en la Guerra Civil, y son un buen reflejo de la cosmovisión de una buena parte de la comunidad euskaldun de la época. En estas narrativas autobiográficas, los autores muestran de manera muy clara la sinrazón de la guerra y el sufrimiento que les supuso. Desde el inicio, intuimos que el proyecto llevaba consigo una serie de tensiones metodológicas, epistemológicas y políticas, y esto es lo que queremos compartir con los lectores.

**Keywords:** Spanish civil war, methodological knots, autobiographies, testimonies, justice.

**Abstract:** This research plan basically involves a textual analysis of and reflection on ten autobiographical narrations written in Basque. The texts chosen feature the common thread of events in connection with the Civil War, and we feel they are a good representation of a generation of Basques living in times of conflict. In their autobiographical narratives the authors vividly portrayed the horror, the senselessness and the bitterness of war, and also conveyed to us the terrible harshness of their suffering. The first drafts of the plan revealed to us that it contained many inherent complications in terms of, among others, methodology, epistemology and politics, and we wish to share these here.